Zumaiako Udala

2021 Bikain

**NORBANAKO KIROLARIEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA 2024KO DEIALDIA.**

**BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES INDIVIDUALES A DEPORTISTAS Y CONVOCATORIA DEL 2024.**

**1. ARTIKULUA.- OINARRI HAUEN XEDEA.**

Oinarri hauen xedea Zumaiako goi-mailako kirolariei eta behar bereziak dituzten herritarrei dirulaguntzak ematea da, 2024rako Zumaiako kirolarientzat Udalaren Aurrekontuetan aurreikusitako kredituen kontura.

Oinarri honek jasotzen dituen Kirolarientzat dirulaguntzak eta Kirol-arloko dirulaguntzak ezinduentzat, Zumaiako Udalaren 2024-27 dirulaguntzen plangintzako IX. eranskinean jasota dago.

Dirulaguntza horien helburu nagusia hauxe da:

- Goi-mailako kirolarien jarduera sustatzea, hau da, kirola egiteko eta bikaintasuna lortzeko aukera ematea beren espezialitatean nazioan edo nazioartean nabarmentzeko gai diren kirolariei, baldin eta hasieratik kalitate ona dutela eta kirol-jardueran bereziki aritzen direla egiaztatzen badute.
- Aniztasun funtzionala duten haurren kirol-jarduera sustatzea, hau da, haien jarduera aurrera eramatea ahalbidetzea.

**ARTÍCULO 1.- OBJETO DE LAS BASES.**

Es objeto de las presente bases la concesión de subvenciones a deportistas de alto nivel y a la población de Zumaia con necesidades específicas, con cargo a los créditos previstos en los Presupuestos del Ayuntamiento de 2024 para deportistas de Zumaia.

Las subvenciones a deportistas y las subvenciones en materia deportiva para personas con discapacidad recogidas en la presente base se recogen en el Anexo IX del Plan de Subvenciones 2024-27 del Ayuntamiento de Zumaia.

El objetivo principal de estas subvenciones es:

- Fomento de actividad deportiva de alto nivel, es decir, ofrecer la oportunidad a los/las deportistas que sean capaces de destacar en su especialidad a nivel nacional o internacional para hacer deporte y para conseguir la excelencia, siempre que acrediten contar con una buena calidad y dedicarse especialmente a esa actividad deportiva.
- Promover la actividad deportiva de los/as niños/as que tienen diversidad funcional, es decir, posibilitar el desarrollo de esa actividad.

**2. ARTIKULUA - ONURADUNAK**

Oinarri hauen bidez arautzen diren laguntzak ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonek eska ditzakete:

a) Zumaian erroldatuta dauden eta aniztasun funtzionala duten 18 urtetik beherako pertsonek (urte naturalean 18 urte betetzen dituztenak barne), betiere Udalak antolatutako kirol-jarduerak egin badituzte.

**ARTÍCULO 2.- PERSONAS BENEFICIARIAS**

Podrán solicitar las ayudas reguladas en las presentes bases las personas que reúnan los siguientes requisitos:

a) Personas menores de 18 años con diversidad funcional (incluidas aquellas que cumplan 18 años en el año natural) empadronadas en Zumaia que hayan realizado actividades deportivas organizadas por el Ayuntamiento.

b) Zumaian erroldatuta dauden goi-mailako kirolariek (irizpideetan zehaztutako emaitzen arabera).

b) Deportistas de alto nivel censados/as en Zumaia (según resultados detallados en los criterios).

**3. ARTIKULUA. AURREKONTUA ETA DIRU HORNIDURA**

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak aurrekontuko honako partidetatik emango dira:

- 1.1300.480.341.00.01 2024 Kirol dirulaguntzak ezinduentzat 1.000€.

- 1.1300.480.341.02 2024 Kirolarientzat dirulaguntzak 3.000€

**ARTÍCULO 3.- DOTACION PRESUPUESTARIA.**

Las subvenciones contempladas en la presente convocatoria se concederán de las siguientes partidas presupuestarias:

- 1.1300.480.341.00.01 2024 Subvenciones deportivas para minusválidos 1.000 €.

- 1.1300.480.341.02 2024 Subvenciones deportivas para deportistas 3.000 €.

**4. ARTIKULUA - ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA.**

Eskabideak Zumaiako Udalaren Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira, Udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**ARTICULO 4.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Las solicitudes se presentarán en el Registro municipal del Ayuntamiento de Zumaia o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Se podrán presentar, asimismo, por registro electrónico accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento a través de su página web (www.zumaia.eus).

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 20 días naturales a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**5. ARTIKULUA.- ESKAERAK AURKEZTEKO BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK.**

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Zumaiako Udalak, NISAEren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horrez gain, beren jarduerak kirol-eskumenen arloan egiten dituzten irabazi-

**ARTÍCULO 5.- REQUISITOS A CUMPLIR PARA LA PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES.**

Las solicitudes se formularán mediante el modelo normalizado que figura en el anexo I de esta convocatoria.

El Ayuntamiento de Zumaia mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la

Zumaiako Udala

asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan,dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaiako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformarenzerbitzuen bidez:

- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Zumaiako Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

tramitación administrativa de la presente subvención destinada a las entidades y asociaciones sin ánimo de lucro que realicen sus actividades en el ámbito de competencias del Área de Deportes. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Zumaia va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE:

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Zumaia lo realizará de oficio el Ayuntamiento de Zumaia.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Eskabidearekin (1. Eranskina) batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo guraso edo legezko tutorearena
- Gastuen eta diru-sarreren balantzea, eskatzaileak sinatuta edo bere guraso edo legezko tutoreak sinatuta.
- Gastu guztien jatorrizko egiaztagiriak (fakturak) eta bakoitzari dagokion transferentzia-agiria.
- Beste dirulaguntzak eskatu baldin badira, horien aitortza (2. Eranskina)
- Zinpeko aitorpena, dirulaguntza jasotzeko debekuetan ez dagoela (1. Eranskina)

Goi-mailako kirolarien kasuan, honako hauek ere bai:

- Kirol-emaitzak (3. Eranskina).
- Dagokion federazioan alta ematearen fitxa edo ziurtagiria.

Aniztasun funtzionala duten adin txikikoen kasuan, honako hauek ere bai:

- Egindako kirol jarduerak (4. Eranskina).
- Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako agiria, aniztasun funtzionalaren mota eta ehunekoa azaltzen dituena.

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Zumaiako Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala balioesteko.

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez baditu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio-organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliodun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Deberán acompañarse a la solicitud (anexo I de la convocatoria) los siguientes documentos:

— Fotocopia del DNI de la persona solicitante o su madre, padre o tutor legal.

— Balance de gastos e ingresos, firmado por la persona solicitante o su madre, padre o tutor legal.

— Justificantes originales de todos los gastos (facturas) y sus correspondientes transferencias de pago.

— Declaración de otras subvenciones, en el caso de que las hubiera (anexo II).

— Declaración jurada de no estar incursa en prohibición legal alguna que inhabilite la obtención de subvenciones (anexo I).

En el caso de deportistas de alto nivel:

- Resultados deportivos (anexo 3).
- Ficha o certificado de alta en la federación correspondiente.

En el caso de menores con diversidad funcional, también:

- Actividades deportivas realizadas (anexo 4).
- Documento emitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el que se especifique el tipo y porcentaje de diversidad funcional.

En cualquier caso, además de la documentación relativa a la actividad presentada, el Ayuntamiento de Zumaia podrá requerir a las personas solicitantes información adicional para la correcta valoración de la misma.

Si la solicitud no estuviera debidamente cumplimentada o no reuniera los requisitos establecidos, el órgano instructor requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles subsane la falta, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose sin más trámite, previa Resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la LPAC.

Zumaiako Udala

Instrukzio-organoak edozein unetan beharrezkoa ikusten duen jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria jaso ahal izango du hobeto egiaztatzeko betetzen direla dirulaguntza hauek arautzen dituzten arauetan eskatutako baldintzak.

**6. ARTIKULUA.- ESKAERA TELEMATIKOEN AURKEZTEA**.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena kontuan hartuz, eskaerak Erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, Udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

**7. ARTIKULUA.- AKATSAK ZUZENTZEA.**

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua).

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi duela iritziko da, eta prozedura artxibatuko da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legean 94. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

El órgano instructor podrá recabar en cualquier momento la documentación original o complementaria que considere necesaria para acreditar mejor el exacto cumplimiento de las condiciones exigidas en las normas reguladoras de estas subvenciones.

**ARTÍCULO 6.- PRESENTACION DE SOLICITUDES TELEMATICAS.**

Teniendo en cuenta la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes deberán presentarse a través del Registro electrónico, accediendo a la sede electrónica del Ayuntamiento, a través de su página web (www.zumaia.eus).

**ARTÍCULO 7.- SUBSANACION DE ERRORES**

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados (artículo 68.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre).

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se entenderá que desiste de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.

**8. ARTIKULUA.- GOI-MAILAKO KIROLARIEI DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK.**

| MAILA ABSOLUTUAN | | PUNTUAZIOA |
|---|---|---|
| Munduko txapelketa | 1etik 3ra | 18 |
| | 4tik 15era | 10 |
| Europako txapelketa | 1etik 3ra | 13 |
| | 4tik 10era | 8 |
| Estatuko txapelketa | 1 | 6 |
| | 2 | 3 |

| ADIN TARTEAK EDO MASTER KATEGORIAN | | PUNTUAZIOA |
|---|---|---|
| Munduko txapelketa | 1etik 3ra | 8 |
| | 4tik 15era | 6 |
| Europako txapelketa | 1etik 3ra | 6 |
| | 4tik 10era | 4 |
| Estatuko txapelketa | 1 | - |
| | 2 | - |

| MAILA ABSOLUTUTIK BEHERA | | PUNTUAZIOA |
|---|---|---|
| Munduko txapelketa | 1etik 3ra | 20 |
| | 4tik 15era | 12 |
| Europako txapelketa | 1etik 3ra | 15 |
| | 4tik 10era | 10 |
| Estatuko txapelketa | 1-2 | 8 |
| | 3-5 | 5 |

**ARTÍCULO 8.- CRITERIOS PARA LA CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN A DEPORTISTA DE ALTO NIVEL.**

| CATEGORÍA ABSOLUTA | | PUNTUACIÓN |
|---|---|---|
| Campeonato del Mundo | 1 al 3 | 18 |
| | 4 al 15 | 10 |
| Campeonato de Europa | 1 al 3 | 13 |
| | 4 al 10 | 8 |
| Campeonato estatal-España | 1 | 6 |
| | 2 | 3 |

| CATEGORÍA DE EDADES O MASTER | | PUNTUACIÓN |
|---|---|---|
| Campeonato del Mundo | 1 al 3 | 8 |
| | 4 al 15 | 6 |
| Campeonato de Europa | 1 al 3 | 6 |
| | 4 al 10 | 4 |
| Campeonato estatal-España | 1 | - |
| | 2 | - |

| CATEGORÍA INFERIOR A LA ABSOLUTA | | PUNTUACIÓN |
|---|---|---|
| Campeonato del Mundo | 1 al 3 | 20 |
| | 4 al 15 | 12 |
| Campeonato de Europa | 1 al 3 | 15 |
| | 4 al 10 | 10 |
| Campeonato estatal-España | 1-2 | 8 |
| | 3-5 | 5 |

| ADINA | PUNTUAZIOA |
|---|---|
| 12-13 urte | 10 |
| 14-15 urte | 8 |
| 16-17 urte | 6 |
| 18-19 urte | 4 |
| 20-22 urte | 2 |
| 23 urtetik aurrera | 0 |

| EDAD | PUNTUACIÓN |
|---|---|
| 12-13 años | 10 |
| 14-15 años | 8 |
| 16-17 años | 6 |
| 18-19 años | 4 |
| 20-22 años | 2 |
| 23 años en adelante | 0 |

| GENEROA | PUNTUAZIOA |
|---|---|
| Neskei bideratutako txapelketan parte hartzeagatik | 2 |
| Mutilei bideratutako txapelketan parte hartzeagatik | 0 |

| GENERO | PUNTUACIÓN |
|---|---|
| Por participar en competiciones femeninas | 2 |
| Por participar en competiciones masculinas | 0 |

| ANIZTASUN FUNTZIONALA | PUNTUAZIOA |
|---|---|
| Kirol Egokituko txapelketatan parte hartzeagatik | 2 |

| DIVERSIDAD FUNCIONAL | PUNTUACIÓN |
|---|---|
| Por participar en competiciones de deporte adaptado | 2 |

Goi-mailako kirolarien kasuan, curriculumaren balioespenean lortutako puntuazioa kalkulatuko da, beti ere kirolariak mailarik edo puntuazio altuena duen emaitza kontuan harturik. Honekin puntuazio erlazio bat ezarriko da eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera. Azkenik kirolari bakoitzak lortutako puntuekin laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da.

En el caso de deportistas de alto nivel, se calculará la puntuación obtenida en la valoración del currículo, siempre valorando únicamente la competición de mayor nivel o puntuación que haya logrado. Con esto se establecerá una relación de puntuación en función del presupuesto disponible. Finalmente, con los puntos obtenidos por cada deportista se determinará la cuantía de la ayuda.

Kirolari batek ezingo du guztizko laguntzaren % 30a baino gehiago jaso. Kasuren batean hori gertatuz gero, kopuru hori kendu eta euro-puntuazio erlazioa berriz egingo da gainerako kirolarientzat.

Un/a solo/a deportista no podrá recibir más del 30 % de la ayuda total. En el caso de que en algún caso se produzca esta circunstancia, se deducirá dicha cantidad y se retomará la relación euro-puntuación para el resto de deportistas.

Kontuan hartuko diren jarduerak edo txapelketak kirol denboraldikoak izango

Las actividades o campeonatos que se

dira, hau da, urriaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaitzen direnak.

**9. ARTIKULUA.- INSTRUKZIOA**

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Zumaiako Udaleko Kirol saila.
- Ebazpena: Alkateari dagokio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea kirol sailaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Kirol sailak dirulaguntza eskaerei buruz egingo duen aurre ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Kirol saileko arduradunak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio-txostena egingo du aipatu balorazio-irizpideen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez

tendrán en cuenta serán los de la temporada deportiva, es decir, los que comiencen el 1 de octubre y finalicen el 30 de septiembre.

**ARTÍCULO 9.- INSTRUCCIÓN**

La instrucción y propuesta se realizará de acuerdo con lo establecido en la normativa vigente.

Órganos competentes:

— Instrucción: Servicio de deportes del Ayuntamiento de Zumaia.

— Resolución: corresponderá al Alcalde en virtud de las competencias y delegaciones temporales vigentes en cada momento en la organización administrativa municipal.

Corresponde al servicio de deportes la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención, correspondiéndole, de oficio, la realización de cuantas acciones sean necesarias para la determinación, obtención y verificación de los datos necesarios para llevar a cabo la propuesta de resolución.

La fase de instrucción comenzará con la evaluación previa de las solicitudes de subvención por parte del servicio de deportes. La evaluación preliminar comprobará que la persona solicitante reúne todos los requisitos establecidos par acceder a la condición de beneficiaria de la subvención y que la documentación presentada es completa y adecuada.

La persona responsable del servicio de deportes elaborará un informe de valoración de las solicitudes presentadas a la convocatoria de subvenciones en base a los criterios de valoración mencionados.

Una vez evaluadas las solicitudes, elaborará la propuesta de resolución, debidamente motivada, y la elevará al órgano competente para su resolución.

Si el resultado de la evaluación fuera la denegación de la subvención, con carácter previo a la resolución que

ditzaten.

**10. ARTIKULUA.- EBAZPENA**

Alkateari egokituko zaio ebaztea, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**11. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA**

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Ordainketa zati batean egingo da eskatzailearen titulartasuneko kontu batera banku-transferentzia bidez:

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru-zenbatekoen ordainketa aurreratuak egitea baimen dezake Alkateak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikuluak egiten duen araupenaren arabera egingo dira aurrerapen horiek. Horrez gain, Udalaren dirulaguntzen ordenantza arautzaileak dioena izango da kontuan.

**12. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA, LIKIDAZIOA ETA EPEA.**

Dirulaguntzaren justifikazioa eskari-orriarekin batera aurkeztuko da.

**13. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.**

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan

proceda, se les concederá un plazo de 10 días a las personas interesadas para que formulen las alegaciones que estimen oportunas en el trámite de audiencia.

**ARTÍCULO 10.- RESOLUCIÓN**

Corresponderá al Alcalde resolver en virtud de las competencias y delegaciones temporales vigentes en cada momento en la organización administrativa municipal.

La resolución del procedimiento se notificará a las personas interesadas de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**ARTÍCULO 11.- CUANTÍA Y PAGO DE LA SUBVENCIÓN**

En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona solicitante.

El pago se realizará en un solo pago mediante transferencia bancaria a una cuenta titularidad de la entidad beneficiaria:

El Alcalde podrá autorizar el abono anticipado de las cantidades necesarias para la realización de las acciones objeto de la convocatoria. Estos avances se realizarán conforme a la regulación que hace el artículo 34 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. Asimismo, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de las subvenciones municipales.

**ARTÍCULO 12.- JUSTIFICACIÓN, LIQUIDACIÓN Y PLAZO**

Se presentará la justificación junto con la hoja de solicitud.

**ARTÍCULO 13.- GASTOS SUBVENCIONABLES**

Se consideran gastos subvencionables

ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti bete beharko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

Onartuko diren gastuak epealdian egin beharko dira eta ordainketa agiria epealdi berekoa izango da.

Aniztasun funtzionaleko kirolarien kasuan, Kirol Patronatuak antolatutako jarduerak izango dira diruz lagunduko direnak.

**14. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA.**

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismoek emandako laguntzekin. Hala ere, gainfinantzaketa ez da onartuko eta kasu horretan, jakinarazi egin beharko du eta dagokion zati proportzionala itzuli beharko du laguntzaren onuradunak.

**14. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA**

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradun diren pertsonek behar bezala iragarri behar dute, euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz, beren ekitaldi eta agerraldi publikoetan Zumaiako Udalaren dirulaguntza jaso duela.

**15. ARTIKULUA.- ARAUBIDEA**

Deialdi honek aurreikusi gabeko alderdi guztietan, betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean), lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege-dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean), Zumaiako Udalaren dirulaguntzak emateko

aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases, en todo caso, de conformidad con lo establecido en el artículo 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Los gastos que se aprueben deberán realizarse en el mismo periodo y el justificante de pago será de ese mismo periodo.

En el caso de deportistas con diversidad funcional, serán objeto de subvención las actividades organizadas por el Patronato de Deportes.

**ARTÍCULO 14.- COMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS.**

Las subvenciones contempladas en las presentes bases serán compatibles con otras concedidas por otras asociaciones y organismos. No obstante, no se admitirá la sobrefinanciación, en cuyo caso la persona beneficiaria de la ayuda deberá comunicarlo y devolver la parte proporcional correspondiente

**ARTÍCULO 14.- PUBLICIDAD**

Las personas beneficiarias de las subvenciones concedidas al amparo de las presentes bases deberán hacer pública, en euskera y/o en euskera y castellano, la percepción de la subvención del Ayuntamiento de Zumaia en sus actos y comparecencias públicas.

**ARTÍCULO 15.- NORMATIVA**

En todo lo no estipulado en la presente convocatoria, serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (publicada en el Boletín Oficial del Estado del 18 de noviembre); el Reglamento de Desarrollo de dicha ley, aprobado mediante el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (publicado en el Boletín Oficial del Estado del 25 de julio); la

Ordenantza Arautzaile Orokorra.

Ordenanza Normativa General sobre otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia.

Zumaiako Udala

I. ERANSKINA / **ANEXO I**
**NORBANAKOEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN ESKARI-ORRIA**

HOJA DE SOLICITUD DE SUBVENCIONES INDIVIDUALES

**Interesduna (dirulaguntza jaso nahi duen pertsonaren datuak): /** Persona interesada (datos de la persona que quiere recibir la ayuda):

| **Interesdunaren izena** / Nombre de la persona interesada | **NAN-AIZ**/ DNI-NIE | |
|---|---|---|
| | | |
| **Helbidea** / Dirección | **Herria** / Población | **PK** / CP |
| | | |
| **Telefonoa** | **Hel. elektronikoa** / E-mail | |
| | | |

**Ordezkaria (agiri honen aurkezlearen datuak) – Interesduna adin txikikoa denean, gurasoa edo legezko tutorea**

Representante (datos de la persona que presenta este documento) – Si la persona interesada es menor de edad, madre-padre o tutor legal

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | **NAN-AIZ** / DNI-NIE |
|---|---|
| | |

**Jakinarazpenak bidaltzeko datuak: /** Datos para envío de notificaciones:

| **Helbidea** / Domicilio | **Herria** / Población | **PK** / CP |
|---|---|---|
| | | |
| **Telefonoa** | **Hel. elektronikoa** / E-mail | |
| | | |

**Banketxea (dirulaguntza sartzeko): /** Entidad bancaria para ingreso de la subvención:

| **Banketxea** / Entidad bancaria | **Kontu zk. (IBAN barne)**/ Número de cuenta (con IBAN) |
|---|---|
| | E S |

**Dirulaguntza eskaeraren datuak: /** Datos de la petición de subvención:

☐ **Goi-mailako kirolarientzako dirulaguntza** / Ayuda a deportistas de alto nivel.

☐ **Aniztasun funtzionaleko adin txikiko kirolarientzako dirulaguntza.** / Ayuda a deportistas menores de edad con diversidad funcional.

**ZUMAIAKO UDALAREKIN OFIZIOZKO KONPROBAZIOAK**

Kirol Patronatuak Zumaiako Udalaren datu hauek egiaztatuko ditu:

ERROLDA AGIRIA

UDALAREKIN ZORRIK EZ DUELA

**BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK**

Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaiako Udalak bere dirulaguntza ordenantzetan (GAOko 151 aldizkaria, 2020ko abuztuaren 11koa) ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

☐ Foru Ogasuna - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
☐ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

☐ **Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut**

Nire erantzukizunpean adierazten dut nik ordezkatzen dudan pertsona ez dagoela sartuta dirulaguntzak lortzeko oinarri orokorretako 11. artikuluan aipatzen diren debeku arrazoietan.

BAI ☐ EZ ☐

Adierazten dut aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla.

BAI ☐ EZ ☐

**COMPROBACIONES DE OFICIO CON EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA**

El Patronato de Deportes verificará de oficio estos datos del Ayuntamiento de Zumaia:

CERTIFICADO DE EMPADRONAMIENTO

HALLARSE AL CORRIENTE DE LOS PAGOS

**SERVICIOS QUE SE SOLICITARÁN MEDIANTE LA PLATAFORMA DE INTERMEDIACIÓN DE DATOS**

Se informa al solicitante, que el ayuntamiento de Zumaia va a verificar los requisitos establecidos en la ordenanza general de subvenciones (BOG Nº 151, del 11 de agosto de 2020) desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. La persona solicitante tendrá opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.

☐ Hacienda Foral - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias
☐ Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social

☐ **Me opongo, y aporto la documentación requerida.**

Declaro bajo mi responsabilidad que la persona a la que represento no está incursa en los supuestos de prohibición para la obtención de subvenciones a las que se refiere el artículo 11 de las Bases Generales.
SÍ ☐ NO ☐

Declaro que todos los datos aportados son verídicos.
SÍ ☐ NO ☐

**Zumaian,**

**Eskatzailearen izen-abizenak, NAN-AIZ zenbakia eta sinadura**

Nombre y apellidos de la persona solicitante, Nº de DNI-NIE y firma

Basadi auzunea 16, 20750 ZUMAIA • Tel.: 943 86 20 21 • Faxa: 943 86 20 19 • http://www.zumaia.eus
• info@lubaki.eus

**II. ERANSKINA**/ANEXO II

**DIRULAGUNTZAK: BESTE LAGUNTZA ESKABIDEEN AITORPENA**
SUBVENCIONES: DECLARACIÓN SOBRE OTRAS SOLICITUDES DE AYUDAS

**Eskatzailearen datuak: /** Datos de la persona solicitante:

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | | | **NAN-AIZ** / DNI-NIE |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **Helbidea**/ Domicilio | | **Herria** / Población | **PK** / CP |
| | | | |
| **Tel.** | **Hel. elektronikoa** / E-mail | | |
| | | | |

**Ordezkaria: /** Representante:

| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | **NAN-AIZ** / DNI-NIE |
|---|---|
| | |

**Jarduera hauetarako eskatutako edo jasotako beste laguntzak (jaso badira, zenbatekoa azaldu):**
Otras ayudas solicitadas o recibidas para estas actividades (si se han recibido, especificar importe):

| **Administrazioa edo erakundea** / Administración o entidad | **Jasotako zenbatekoa** / Importe recibido |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| ☐ **Ez dugu jaso edo eskatu beste inongo laguntzarik** / No hemos recibido ni solicitado ninguna otra ayuda | |

**Nire erantzukizunpean goian azaldutako datuak egiazkoak direla adierazten dut.**

Declaro bajo mi responsabilidad que los datos arriba indicados son verídicos.

Zumaian:

**Sinadura** / Firma

**III. ERANSKINA**
**GOI-MAILAKO KIROLARIAREN JARDUERAREN DESKRIBAPENA/**

Anexo III. Descripción de la actividad deportiva del/de la deportista de alto nivel

**Dagokion atala bete** / Cumplimentar la tabla que corresponda:

☐ **MAILA ABSOLUTUAN ARITZEN NAIZ eta emaitza hauek lortu ditut:**
Mis resultados en categoría absoluta son los siguientes:

| | | LORTUTAKO EMAITZA Resultado |
|---|---|---|
| **Munduko txapelketa, maila absolutuan** / Campeonato del Mundo absoluto | **1etik 3ra** / 1 al 3 | |
| | **4tik 15era** / 4 al 15 | |
| **Europako txapelketa, maila absolutuan** / Campeonato de Europa absoluto | **1etik 3ra** / 1 al 3 | |
| | **4tik 10era** / 4 al 10 | |
| **Estatuko txapelketa, maila absolutuan** / Campeonato Estatal absoluto | **1etik 2ra** / 1 al 2 | |

☐ **MAILA ABSOLUTUTIK BEHERA ARITZEN NAIZ eta emaitza hauek lortu ditut:**
Mis resultados en categoría inferior a la absoluta son los siguientes:

| | | LORTUTAKO EMAITZA Resultado |
|---|---|---|
| **Maila absolututik beherako kategoriatan munduko txapelketa** / Campeonato del Mundo de la categorías inferiores a la absoluta | **1etik 3ra** / 1 al 3 | |
| | **4tik 15era** / 4 al 15 | |
| **Maila absolututik beherako Europako txapelketa** / Campeonato de Europa de categorías inferiores a la absoluta | **1etik 3ra** / 1 al 3 | |
| | **4tik 10era** / 4 al 10 | |
| **Maila absolututik beherako Estatuko txapelketa** / Campeonato Estatal de la categoría inferior a la absoluta | **1etik 2ra** / 1 al 2 | |
| | 3tik 5era / 3 al 5 | |

☐ **ADIN TARTETAN EDO MASTER KATEGORIAN ARITZEN NAIZ eta emaitza hauek lortu ditut:**
Mis resultados en categoría master o grupos de edades son los siguientes:

| | | LORTUTAKO EMAITZA Resultado |
|---|---|---|
| **Maila absolututik beherako kategoriatan munduko txapelketa /** Campeonato del Mundo de la categorías inferiores a la absoluta | **1etik 3ra** / 1 al 3 | |
| | **4tik 15era** / 4 al 15 | |
| **Maila absolututik beherako Europako txapelketa** / Campeonato de Europa de categorías inferiores a la absoluta | **1etik 3ra** / 1 al 3 | |
| | **4tik 10era** / 4 al 10 | |

**IV. ERANSKINA ANIZTASUN FUNTZIONALEKO KIROLARIAREN JARDUERAREN DESKRIBAPENA**

Anexo IV. Descripción de la actividad deportiva del/de la deportista con diversidad funcional

| **JARDUERA**/ACTIVIDAD | **EPEALDIA** / PERIODO |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |